



LEMA

Recogida y gestión inteligente
de basuras marinas para autoridades locales

NEWS LETTER #6



EDITORIALA



Irakurle agurgarriok,

Atsegin handiz aurkezten dizuegu LifeLEMA proiektuaren seigarren buletina.

Bertan, itxiera ofizialerako LifeLEMAko azken emaitzak aurkezten dira. 2019ko G7 goi bilera gai garrantzitsua izango da mahai-inguruetan, LifeLEMAREN agendarentzako funtsezko osagai bat baita.

LifeLEMAko bazkideek euren homologo berriekin eta nazioarteko solaskideekin elkartzeko abagunea izan zuten, eta baita azken hiru urteetako ibilbideari buruzko iritziak trukatu eta alor askotako jendea ezagutzeko aukera ere (GKE-n sektorea, enpresa handiak, merkataritzaren sektorea, gobernuetako erakundeak eta ordezkariak, eta abar).

Egia esan, EU Life programaren asmoa pertsonak bateratzea da, eta G7 gune neuralgiko bat da LifeLEMAREN bazkideentzat.

Proiektua bere amaierara heltzen ari den une honetan, lanaren emaitzak aurkezteko eta horiek ingurumenaren esparruko beste solaskide batzuekin partekatzekeo garaia da.

Hala, buletin honen ildo nagusia Ozeanoaren Deia eta Ocean Pabiloia izango dira, eta baita horiek LifeLEMARENtzat dakartzaten aukerak. Saio berezi batean, kideek Metz kongresuan—ingurumenaren G7 deiturikoan— burututako lan garrantzitsua aurkeztu ahalko dute.



PERSPECTIVAS INTERNACIONALES DE LIFE LEMA



Europar proiektua den heinean, LifeLEMAk nazioarteko ekitaldi eta kongresu ugarian parte hartuko du, harremanak zabaltzeko eta atzerriko euren homologoekin harremanetan jartzeko xedez. Helburu orokorrak (plastikoaren ondoriozko kutsadura, adibidez) hobeki ebaluatzeko modu bat izango da, eta era berean ikuspegi orokor bat eskainiko du itsasoko zaborraren jarraipenari dagokionez, herrialde batetik bestera aldaketak egon ohi baitira.

Europar Batasunak tresna global bat aurkitu nahi du, Europako beste herrialde batzuetan ere erabili ahalko dena, plastikoen krisiari erantzuteko unean estatu guztiak baldintza berdinak izan ditzaten.

Esan beharrik ere ez da, Nazio Batzuen Erakundeak finkatutako Garapen Jasangarrirako Helburuak funtsezkoak direla LifeLEMArentzat, kideei tresna eta baliabide eraginkorrak aurkitzea ahalbidetuko dien esparru nagusia baita. Kideek zein helburu landu behar dituzten eta zein helburutan egin behar duten esfortzu handiagoa zehazten du, nolabait.

Osagai global horretaz haratago, LifeLEMAko kideek euren nazioarteko lankideen metodoak eta jardunbideak ikasteko jakin-mina izaten dute beti. Europar Batasuneko balio partekatuen isla da hori, euren printzipioen oinarria osatzen dutenak, hain zuzen.

Azken batean, argi dago plastikoen krisia bezain arazo larriak konpontzeko estrategia globalak, integralak eta bateratuak behar direla, eta xede horiek lortzeko oinarrizko eginkizuna dute Europar Batasuna edo Nazio Batuen Erakundea bezalako nazioarteko erakundeek.



SDG 14 TARGETS:

14 LIFE BELOW WATER

14.1 By 2025, prevent and significantly reduce marine pollution of all kinds

14.2 By 2020, sustainably manage and protect marine and coastal ecosystems to avoid significant adverse impacts

14.3 Minimize and address the impacts of ocean acidification, including through enhanced scientific cooperation at all levels

14.4 By 2020, effectively regulate harvesting and end overfishing, illegal, unreported and unregulated fishing and destructive fishing practices

14.5 By 2020, conserve at least 10 per cent of coastal and marine areas

14.6 By 2020, prohibit certain forms of fisheries subsidies which contribute to overcapacity and overfishing, eliminate subsidies that contribute to illegal, unreported and unregulated fishing

14.7 By 2030, increase the economic benefits to Small Island developing States and least developed countries from the sustainable use of marine resources

SUSTAINABLE DEVELOPMENT GOALS NEREUS PROGRAM





20/08 - 23/08



AGENDA #6

OCEAN PABILOIA

 Derrigorrezko izen-ematea duen ekitaldia


 Biarritz

 <https://goo.gl/maps/sb51BSNLHuuctsF4Q8>


Abuztuaren 20 eta 23 bitartean, Surfrider Europa Fundazioak Ocean Pabiloia ezarri zuen, Biarritzeko G7 goi bileraren aurretik lau lanaldi oso burutu ziren bertan. Xede nagusia negoziazio diplomatikoetan ozeanoen zaintzaren gaia txertatzea zen.

Eztabaidak eta hitzaldiak lau gai handiren inguruan ardaztu ziren. Egun oso bat eskaini zitzaion plastikoen ondoriozko ozeanoen kutsadurari (abuztuak 22).

OZEANOAREN DEIA

 Negoziazioak atek irekita

 Biarritz

 <https://goo.gl/maps/sb51BSNLHuuctsF4Q8>


Ozeano Pabiloian lau egunez bilerak, lantegiak eta hausnarketa foroak egiten pasa ondoren, adierazpen bateratu bat idatzi zen: "Ozeanoaren Deia". Dokumentu hori berrogeita hamar erakundek baino gehiagok izenpetu zuten, eta jardunaldietan izandako solaskideek konpromisoa islatzeaz gain, proposamen zehatzak aurkezten ditu erabakiak hartzen dituzten arduradunentzat. <https://www.surfrider.org/coastal-blog/entry/ocean-call-to-the-g7-a-success-in-biarritz>




24/08 - 26/08



AGENDA #6 LIFELEMA G7-AN

 Derrigorrezko izen-ematea duen ekitaldia

 Biarritz

 <https://goo.gl/maps/sb51BSNLHuctsF4Q8>

Maria Ballesteros Rivasek aurkeztu zuen LifeLEMA proiektua Ocean elkarrizketetan, plastikoen ondoriozko kutsaduraren hitzaldi batean. Estrategia bateratu baten bidez, mikro-eta makro- plastikoen kutsadura nola bukarazi azaldu zuen Mariak, horretarako herritarren zientzia erabiliz. Argi utzi zuen mundu mailako arazoak konpontzeko bide bakarra herritarrak ahalduntzea eta eztabaida demokratiko bat sustatzea dela. Besteak beste, Frantziako ingurumenaren ministroa hitzaldian izan zen.



4 PRIORITIES TO PROTECT BIODIVERSITY AND CLIMATE

The **Environment Ministers meeting** taking place in Metz on 5th and 6th May will have 4 priorities :

- Combating inequality through an inclusive ecological transition
- Supporting scientific warnings and international action on biodiversity and the climate
- Promoting tangible solutions for the climate and biodiversity
- Financing the preservation of biodiversity



LIFELEMA METZ-EN, GIZARTE ZIBILAREN EKITALDIA



2019ko maiatzaren 5ean eta 6an, G7 goi bilera prestatzeko xedea zuen kongresu berezi batean parte hartu zuen LifeLEMAk. Gizarte zibilaren ekitaldi bat izan zen, ingurumen-babesari buruzkoa, eta izen-emate irekia zuena. Hitzaldi hori, ingurumenaren G7 ere izendatu zutena, aukera itzela izan zen LifeLEMAko kideentzat euren proiektua Nazio Batuen Erakundeko ordezkarien aurrean aurkezteko. Aurkezpen hori biziki garrantzitsua zen eurentzat, nazioarteko solaskideak eta homologoak ezagutzea ahalbidetu baitzien, eta haiei herritarren zientziak plastikoen kutsaduraren aurka borrokatzen lagundu dezakeela erakusteko aukera eman baitzien.



ANTIDIA CITORES

Surfrider Foundation Europe

Presio taldeen bozeramailea eta kudeatzailea

Paris, Frantzia

Ekitaldiaren amaieran, Gaetano Leone-k, PNUMA/MAP-ko idazkariak, itsasoko zaborraren lantaldearen ondorioak azaldu zizkien G7ko ministroei.



Vanessa Salvo, LifeLEMAren koordinatzaileak, NBERen ordezkariari aurkeztu zien proiektua. Surfrider Fundazioak, beste GKE batzuekin batera, negoziatutako txosten baten idazketan parte hartu zuen, zazpi herrialdeetako ministroen bilerarako.

Dokumentu horren helburua ingurumena babestea eta krisi klimatikoari aurre egitea da, eta helburu horiek ez dira lortuko G7a osatzen duten herrialde guztien konpromisorik gabe. Prozesuan gizarte zibilak parte hartzea funtsezkoa da, mundu-mailako ekintza guztiek herritarren ekintzak behar baitituzte.

FRANCOIS DE RUGY

Frantziako ingurumen ministro ohia

